


Rafa Ruedak bere atzen diskoa aurkeztuko dau Lemoan

15. orrialdea

Onditz Iturbe, Lemoatx Trail lasterketako irabazlea izan da

Lemoatx Traileko lasterketa nagusiko andrazkoen txapela jantzi eban Onditz Iturbe lasterketari igorreztarak. Bigarrena Oihana Azkorbebeitia izan zan eta hirugarrena Larraitz Aragon. Gizonezkoetan, Imanol Goñik jantzi eban txapela. **13. orrialdea**



Sisíforen paperak antzeztuko dabe Igorren hilaren 11n

15. orrialdea

Arratiak Euskerearen Eguna ospatuko dau

Herrietan egingo diran ekintzek, erabilerearen alde ludikoa bultzatu eta euskerea indartzeko hizkuntza ohiturak aldatutea bilatzen dabe. Iluntze partean izango dira ekintza gehienak.

Abenduaren 3an ospatuten da Euskerearen Nazinoarteko Eguna eta Arratian eta Zeberion hainbat ekintza egingo ditue euskerearen alde. Egun horretan, batez be, ekintza ludikoak izango dira: dokumentalak, antzerkia, bertso poteoak edo poteo musikatuak, kalejirak eta abar, baina badira baita be, hain puntualak ez diranak eta kanpaina orokorrako baten sartzearan diranak. Honeek dira hizkuntza ohiturak aldatutea bilatzen dabenak.

Holan, Pantailak euskaraz ekimenera jentea batu daiten, berbaldia egongo da Igorreko Kultur Etxean hilaren 2an. Zeberioko Udala, Tokikom-en *Haurren aurrean helduok heldu* kanpainara batu da eta 12

urte baino gitxiagoko umeak dituen gurasoak umeen aurrean euskeraz egitera animetan ditu. Kanpaineak zemendiaren 22tik abenduaren 5era arte dirau.

Gabonak ez dagoz urrun, eta sasoi horretan egiten dan konsumoaren zati bat, aisialdia euskeraz emotea ahalbidetzen daben euskal produktuak erosteko, Euskal Produktuen Katalogoa bananduko dabe Zeberioko eskolan. Katalogoan, euskerazko liburu, disko, aplikazio eta jokoen azken produkzioak jasoten dira.

Urte birik danez, aurtan ez da Euskaraldiaren urtea, baina euskeraz gehiago egiteko espirituagaz bat egiten dau Euskerearen Nazinoarteko Egunak.

10. eta 11. orrialdeak



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Barruan zein aire zabalean urrutze neurriak indartzeko agindu dau Osasun Sailburuak

EAEn %90 baino gehiagok txertoa ipinita daukan arren, kutsatzeetan tasa metatua gora doa eta neurri gehiago agindu dauz Jauraritzak. **5. orrialdea**

IGORRE

Ilunbe enpresek Aldundiko 3i dirulaguntzea jaso dau

Balio katean presentzia handituteko inbersino proiektua. Dibersifikazioa, barrikuntzea eta barneratzea izeneko proiektuaren bidez 40 lanpostu sortutea espero dabe Ilunben. Proiektuak 2.548.628 euroko aurrekontua dauka eta Aldundiak %16gaz lagundu dau. **5. orrialdea**

ARRATIA

COVID-19 erreskatea jaso ez dogunok be sufridu doguz COVIDaren ondorioak

Eusko Jauraritzak ebatzi dau he-dabide batzuk laguntzea COVID-19ak eragindako galerak apaltzeko, 5 milioi eurogaz. Albisteak egoneza sortu dau, inon ez dau azaldu eta zer dala eta emon jakiezan laguntza horreek he-dabide batzuei, eta beste batzuei ez. TOKIKOMen Administrazio Kontseilutik -BEGITU argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarte TO-KIKOMen dago- galdegin jako Jauraritzeari ea asmorik daukan gainontzekoak be laguntzeko, eta erantzun horren zain dago TOKIKOM. **6. orrialdea**

GARENA
Tradizio berriak

Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant

[f](https://www.facebook.com/garena.restaurant) [i](https://www.instagram.com/garena.restaurant) [garena.restaurant](https://www.garena.restaurant)

EKIN
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraketak@construccioneseakin.com

Literatura txokoa

HAMABOST ZAURI

Mila gelan sartu da. Senarra beste andra bategaz topau dau ohean. Bata besteari ezkutuko altxorrak eskaintzen dabiz. Ez jako negar malkorik atera, ezta garrasirik be. Geldi gelditu da. Irudia grabauta geratu jako: andrearen oinak iza-retatik aterata, gorriz pintautako atzazalak erakusten dituala.

Mila laneko afari batera joan eta gizonezko bategaz oheratu da. Astegoienean, bere senarragaz ohean etxunda, zigarroa erreten, senarrak galdetu deutso ea nonogaz oheratu dan. Milak ezetz erantzun deutso gorriz margotutako atzazalei begira dagoala.

Hamabost zauri mota desbardinez mintzo da Karmele Jaio bere lehenengo eleberri honetan. Batzuetan, bakardadeak dakarren

minaz aritzen da, beste batzuetan errutinak eragiten dauan inertziatz, sendatu bako zauriez, golpeen ondorengo orbaneez... Istorio guztietan gizakien arteko hartu-emonek eragiten dabezan gatazkak ditu hizpide, gehienetan bikote hartu-emonak izanik istorio-rioko ildo nagusia.

Erraztasun handiz irakurten da gasteiztarraren estreinako liburua lehenengo orrialdetik. Izan be, idazkera arin eta erakargarrian kontautako istorioek, erraz engantxatzen dabene amaiera zabala daukie, eta horrek, irakurlearen imajinazioaren esku ixten dau gertaeren jarraipena.

Amaia Trejo Aldekoa



Karmele Jaio

Hamabost zauri

Elkar argitaletxea, 2004

136 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112
Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Zemendiaren 29tik abenduaren Sera
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937
22:00etatik 09:00etara
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.
Abenduaren 6tik 12ra
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057
22:00etatik 09:00etara
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Abenduaren 13tik 19ra
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820
22:00etatik 09:00etara
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak
Arantzazu: 94 600 74 63
Artea: 94 673 92 11
Areatza: 94 631 71 52
Bedia: 94 631 34 13
Dima: 94 680 19 74
Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16
Ubide: 945 45 03 61
Zeanuri: 94 673 91 49
Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / mankomunitatea.arratia@bizkaia.org
Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net
Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus
Areatzako Notarioritza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543 / info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.
Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11
Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.
Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 673 90 13.
Helbide elektronikoa: begitu@begitu.eus
Webgunea: www.begitu.eus
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Banaketea: Iraia Herrero (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.
Facebook: Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus. **Instagram:** @begitu.eus
Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:

Arantzazu

Areatza

Artea

Bedia

Dima

Igorre

Lemoa

Ubide

Zeanuri



ZEURE BERBEA

Udal arkitektoaren kontratazinoa dala eta hainbat kezka

Zeanuriko EH Bildutik gure kezkea adierazo gura dogu udal arkitektoaren kontratazinoaren inguruan jasoten diran gorabeherakaitik, batez be kontratua bariztea egokitzen dan honetan.

Atzen kontratua 2017an esleitu jakon Iskander Atutxaren Arkigest enpreari, besteak beste aurkeztu eba- zan hobekuntzakaitik, udal eraikinen inspektzio tekniko bi egitea eta efizien- tzia energetikoko pare bat ziurtagirgaitik hain zuzen be, kontratuaren amaieran egin barik egozanak oindino. Deigarria da, herriako egin behar zan proiektuan edo memorian (modu anonimoan bialdu eta Aldundiko arkitektoek balo- retan ebena), aurkeztu ziran 3 arkitek- toetatik puntuazino eskasena ateratea.

2017an sinatu zan kontratua urte birako zan, beste urte bi luzatzeko aukereagaz. EH Bilduko udal taldeak pleno baten baino gehiagotan kon- tratuaren amaiera hurbiltzen egoala adierazo arren udal gobernuak au- rreikuspen falta izugarria edo itxikeria agertu dau gai honen gainean. Udal

arkitektoari urte hasieran kontratua amaitu jakonetik hilabeteko iraupe- na euki daben kontratu txikiak egin jakoz, 2017an sinatu zan kontratu- ren laugarren klausulea urratuz.

Arkitektoa kontratatuko plegu barriak 2021eko urri bigarrenaren 28an onar- tu ziran udalbatzan, EAJren aldeko botoakaz, atzen lau urteetako baldin- tza ekonomikoak hobetuz. Oin arteko baldintzak be ez dira eskasak izan, 3.056 euro hilabetero aste birik behin gitxienez presentzialki ordu bi lan egi- tearren. Txosten teknikoak aparte ko- brau izan dira, 30.000 eurotik gorako aparteko partidea dago horretarako.

EH Bildutik prezio horretan de- dikazino handiagoa be eskatu ahal dala uste dogu. Baleiteke oin arte izan dogun arkitektoak dedikazinoa handitu ezina be, hainbat udalerritan zerbitzu bera eskaini izan daualako eta hainbat enpresetako partaidea dalako. Kasu askotan ez polemika gitxigaz (Lezama, Bakio, Zaldibarko zabortegia...) prensan behin baino gehiagotan agertu dan bezala.

Horregaitik EH Bildutik, Zeanuriko EAJko udal gobernuak arkitekto ba- rriaren kontratazinoan gardentasunez jokatu dagiala eskatzen dogu, alder- diaren interesei begiratu beharrean zeanuriztarron interesen alde eginaz.

ZEANURIKO EH BILDU

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Aginiaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeru, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Aner Leireri aurreko gaueko abenturea jako kontetan, institutuan, eskola batean. Bart ligetea lortu eban! Miraria!

Aner: Hi, atzo zegeiti joan hintzoan hain gox?
Leire: Higez ez jaok bakerik, horrexegeiti. Neka einde ñengoan osoan.
Aner: Ba ederra galdu hindun.
Leire: Ah, bai? Zegeiti diñok hori?
Aner: Ligetea lortu ñonalako!
Leire: Isilik hao, atzenean... bai?
Aner: Tire, neska, zegeiti ez jonat, ba, ligauko?
Leire: Ez, ez... baia sekule ez dostek gehiegi kontetan...
Aner: Ba bai, June geitzean dona neskatie, Goierrikoa.
Leire: Eta...
Aner: Mmmmm...
Leire: Botaik ba gixona, botaik!
Aner: Alde egin zinduean, eta etxera joateko puntuen ñengonanean, hemikoan inguruen agertu zonan June; kontzertuek ikustera etori zozanan.
Leire: Eta? Konteik ba, Aner!
Aner: Zelango lotsea! Enintxonan beragaz akordetan!
Leire: Ah! Ezetuten hoan?
Aner: Bai, Aste Nagusien ezetu gintxozanan, baia Bilboko jaietan ikusi ñonanean, terriblezko lakatza ñeronan, ta ezin nintzonan bere arpegiegaz akordau.
Leire: Beno, ta? Berbak hariletik tireka atara behako doazat, ala?
Aner: (Disimuluan.) Ondo... tire... ondo.
Leire: Ondo, beste barik? Odolbako hori! Txakinean ein zinduen edo ze?
Aner: Eh... bai, bai... nire amaman baserriko beheko sue baino beroagoa dona neskato hori...
Leire: Bai... bai... argalau igirtan jataa... kar, kar, kar!
Aner: XXXxt! Hao isilik! Geur gelati botako gajozana Txapasek!!!
Leire: Kar, kar, kar!

ERETXIA

Hontza, eskubideen aldeko tresna

O in dala urte batzuk Arratian egon nintzan beharrean mediku lez. Arratiako herri mugalarian, Ubi- den. Asko disfratau neban herriko medikuntzara itzuliz eta asko ika- si neban osasun komunitarioari buruz eta herri txikien bizitzari buruz.

Gero, beste herri batera lanera eta bizitera joan nintzan baina beti gertatzen jatan lez jentea, paisajea eta komunitadea neu- gaz eroan nebazan. Horregaitik pozez idazten dot gaur Arratiako agerkari honetan baina baita kezkaz be.

Pandemiaren hilabete luze ho- neetan gure herrian giza eskubi- deak kolokan ipini dira behin eta barriro eta aldi berean oso tresna gitxi euki doguz (eta daukaguz) gure komunitadea benetan babesteko. Nire ustez eta osasu- naren atxakiagaz, gure jendartea beste parametro batzuetan ipinte- ko, estrategia orokor bihurtu dabe eta holan erabili da, zeozelan. Oinarri indibidual eta kolektiboak, astiro-astiro, desagertu egin dira gure komunitadeetan. Erantzun eta salaketa batzuk sortu dira bai- na orokorrean egoerea onartu da ia kritika barik.

Baina herri txiki honetan askotan gertatu dan moduan, bat-batean persona sano desbardinak (oso posizino eta eremu desbardine- tatik gatozanak), une jakin baten alkartu egin ginan, errealidadea- ren gainean beste modu baten hausnartzeko, eta pentsau gen- duan tresna bat sortu behar gen- duala Giza Eskubideei egindako kalte guztiak agerian ipinteko.

Horretarako Hontza alkartea martxan jarritz, hasi ginan haus- narketea egiten gure lehenengo informea plazaratuteko. Geure eretxian, oso beharrezkoa da iker- keta independentea eta iraunko- rra egitea momentu honetan gure herrian. Eta aldi berean eta kon- tuan izanda instituzinoetatik ez



MATI ITURRALDE
Medikua

dagoala Giza Eskubideen defen- saren aldeko jarkera eraginkorrik, guk geuk behatoki bat sortu dogu, jenteak jakin dagian nora jo, bere eskubideak edo bere komunida- dearen eskubideak bermatzen ez dirala ikusten dauanean.

Gure hausnarketearen arabera egiaztatu ahal izan dogu kalte izu-

garria sortzean dabilala Giza Es- kubideetan Euskal Herrian. Konfi- namentutik txertoen pasaportera behin eta barriro eskubide indibi- dualak txokoratu egin dira eta gai- nera osasunaren izenean... Baina errealidadeak erakusten deusku jentearen osasuna ez dala ber- matu, umeen garapenak atzera egin dauala, adineko personek duin biziteko urteak galdu dituela eta prekariedadea eta pobrezia handitu dirala edonon.

Beste alde batetik, pande- miaren aurkako estrategia ez da propioa izan. Gure ustez, hemen, Euskal Herrian, une jakin baten erabakiteko eskubidea bertan be- hera geratu zan, eta Estaduagazko menpekotasun orokorra manteni- du da, baita Europar Batasunetik etorri diran aginduakazko be. Geure kulturea, geure historia eta geure errealidadea kontuan hartu barik inposatu da estrategia hori hemen, eta oin ikusten dogu ze ondorio latzak ekarri dituan jokabide horrek.

Gitxitan esaten da Espainiako Estaduko estrategia europar he- rrialdeen arteko okerrenetarikoa suertatu dala. Ez da ereduagarria izan inondik be, eta oindino gehia- go, zientzia eta etika desagerturik egon diranean neurri gehienetan. Gure hausnarketearen arabera oso-oso okerra izan da eta autori- tarismoaren garapenaren bitartez inposatu da. Zoritxarreko strate- gia hori Euskal Herrian planteau da aginte bakarraren menpean: gogoratu behar dira Simonen agerraldiak Guardia Zibil eta mi- litarrez inguratutik, eta momentu guztietan ez da kontuan izan he- men badaukagula kultura propio bat, badaukagula identidade pro- pio bat komunitade moduan, eta gure jendartean betidanik egon dala geure arazoak geure mo- duan konponduteko nahia.

Ba errealidade guzti honeek agerian ipinteko Hontza dogu tresna, eta horretarako lan egiteko prest gagoz.

Oin osotuten gabiz tresna ba- tzuk komunikazinoa errazteko eta jendartearen kezkak jasoteko, ze pandemiaren kontrako strate- giak, zoritxarrez, iraungo dau.

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:
<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



PILI ALVAREZ
MOLES

Gogoan zaituet!

Barriro be, zemendiaren 25ean kalera atera gara Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagertu Arazoteko Nazinoarteko Egunean. Bada-kigu indarkeria matxistea arazo estrukturala dala eta horregaitik esparru askotan emoten dala eta modu askotan. Giza eskubide urraketa hau, egunero mikro-matxismoetatik erailketa matxistetara presente dago. Ni gaur, mutur honetan, zentrauko naz, bizirik jarraitu behar eben andra horreek oroitu gura dodazalako eta ez dodalako gura beste andra bat sartzea zerrenda baltz horretan.

Alde batetik, egun honeetan zenbaki asko entzun doguzalako jakin behar dogu Estatu espainiarreko erailketa matxistearen zifra ofizialek kontuan hartzean dabela bakarrik bikote edo bikote ohiak hiltzen dauanean bere bikotea edo bikote ohi. Hori holan, 2021ean 37 andra izan dira. Baina, *feminicidio.net* iturriaren arabera 70 izan

dira, kontuan hartzean daukalako erail dituen andra guztiak andra izateagaitik; esate baterako, prostituzino eremuetan izandako erailketak, edo indarkeria bikarioak eragindakoak, edo bere momentuan, Nagore Laffage bera. Zenbakien aldetik alde dago, ezta?

Beste alde batetik, andren hilketek ia ahaztuta dagozan beste biktima batzuk ixten ditue: umezurtz geratzen diran seme-alabak eta familiak, laguntzarik eta informazino barik, bildurrez eta emozinoen gainbeheraren erdian, aurrera egin behar izaten dabe izapideen labirinto amaibakoan.

Honetaz asko daki, Joshua Alonsok, María José Mateoren (Sesé) semea dalako eta bera be indarkeria matxistearen biktimea dalako. Amaren bikotekide ohiak ama hil ondoren, zortzi urteko anaiatz arduratu zan, berak 25 urte eukazanean. Oin dala 5 urte gertatu zan erailketa eta oin-dino ez dauz konpondu tramite guztiak. Ha-ta guzti be, 2019an amaren poemak argitaratu eba-zan senide, lagun eta andra talde baten laguntzeagaz. *No camión do vento* dauka izena eta irabazi guztiak bideratuta dagoz tratu txar matxistak umezurtz itxitakoen ikasketak eta psikologoak ordaindu ahal izateko. Liburua erosteko helbide honetara idatzi daiteke sese@sesemateo.es.

Seséren berbak hartuta, "haizearen bidean topatuko gara", kideok! Baina espero daigun besteok, bizirik gagozan androk, bizitza zoriontsu baten ostean zuokaz topatzea. Gogoan zaituet!

ZERTZEAN



LEIRE AGINAGA

Edo ez da izango



2. eskuko azoka batean ari da bueltaka Cadizeko hiriko alde zahar jendetsuan. Bueno, bigarren zein 22. eskuko azoka izan daiteke hau, birramonaren etxeko kajoietan gordeta egoten ziren figuratxoak daude salgai bertan. Emakume batekin gurutzatu da, merkatuan saltzaile lanetan zebiltzan 3 gizonen ere erreparatu diote neskari, ez berak bezala ordea, edozein emakumek deskribapen beharrik gabe identifikatuko lukeen begirada eta komentario higuingarria bota diote emakumeari. Neskak ez entzunarena eginda iskin eman die gizonari, eta bera gorputza estaltzen saiatu da inkontzienteki gonari beheraka tiratuz.

Nazka sentitu du barruan, amorrua, ez daki identifikatzen gorputzeko zein izkinatan gorde duen oihua.

Cadizen abuztuan beroa egiten du, baina izan zitekeen Bilbon, Lesakan edota Igorren.

Hondartzatik bueltan hanketako hondarra kentzen dabilen bitartean gogoratu da merkatuko neskarekin. Gogoratu da baita, behin lagun bati praka gorrien barrutik eskua sartu zion tipoaz, go-

goratu da txosnako turnoan etenik gabe bularrera begiratzen zioten gizonen, gogoratu da ezezkoak onartzen ez dituen herrikideaz eta gogoratu da kuadrillako olagarroak babesten dituztenen lagunez. Berarentzat dantza egiten duzula uste duen barrako tipoaz.

Gogoratu da amonaz, eta aitonak honi urteetan zehar eskaintzen zion mespretxuzko begiradaz. Oroitu da epaileez, sistema judizial osoaz, eta okagurea sartu zaio. Oroitu da eroso egon behar ez luketen espazioetan eroso dauden gizonen, edozertaz eta edozeren gainetik iritzia eman dezaketela uste duten horietaz, biktimizazioa bide duten mutilen eta une oro paternalismotik hitz egiten duten bilera kideez.

Eta eskertu ditu lagunarteko uneak, guner osoak eta kolektiboak. Eskertu du norbaitek biolentziaren poliedrikotasuna ikusaraztea. Eskertu ditu ahizpekin izandako elkarrizketa deserosoak. Eta eskertu du antolatze eta autodefentsarako hautua hartu izana. Eta berretsi da, iraultza feminista izango da edo ez da izango.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Beste erreka bat dirudian arren, erreka berbera da eta aurrekoan ateratako antzeko lekutik aterata dago argazkia. Oin, lertxuna ez da ageri eta udagoienaren dotoreziaren orde neguaren indarra erakusten dau Arratia errekeak. Hazitako errekeak lurra eta zugatz enborrak abiadura handian eroaten dituaneko burrunba imajinau daikegu. Neguan naturak erakusten deusku bere indarra, erreka txiki baten potentziala.

Gure bizitzak errekek dirala inoan Jorge Manrique XV. mendean eta metafora horrek geure pentsakerea eragiten jarraituten dau. Negua da zahartzaroa eta neguan erreken emaria handia dan moduan, zahartzaroan gure bizitzen emaria be udagoien isilean espero eitekean baino handiago eta indartsuagoa da.

Urak bajatuko dira. Itzuliko ete da lertxuna?





Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com



begitu
eus



TOKA
Lekuntzari Ageri 10
Igorri



agoa
hagin klinikoa
Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakaia
T. 94 631 50 39
Hilegatu Zirkulatu: 100
R.P.S. 21/06

IGORRE

Ilunbe enpresea Bizkaiko Foru Aldundiko 3i programan dago

Programa honen bitartez 5,6 milioi euro emon jakie "enpleguan eta hazkunderen eragiteko potentziala" daukien proiektuak gauzatzen dituen 15 enpresari; tartean, Igorreko Ilunbe enpreseiari. Ilunberen, *Balio katean presentzia handituteko inbersino proiektua. Dibersifikazinoa, barrikuntzea eta barneratzea* izeneko proiektuak jasoko dau 3i programearen dirulaguntzea. Proiektuaren zenbatekoa 2.548.628 eurokoa da eta 3i programak %16ko dirulaguntzea emongo deutso.

Erredakzinoa

Proiektua, COVID-19aren neurriek eragindako egoera ekonomikoaren ondoriozko krisi testuinguruari erantzuna emoteko asmoz sortu zan. Angel Ramos gerentearen arabera, holangoetan erantzun posibleak bi dira: gauzak gertatu arte itxaron edo, "modu proaktiboan jardun" eta Ilunbek etorkizunari buruzko go-goeta proaktiboa egitea ebatzi dauala azaldu deutso BEGITU. Holan, merkadu barriakaz lotutako ebatziak hartu dabez eta ekoizpen prozesuak eta antolaketak egiturea aldatu dabe, digitalizazio proiektua inplementau da, instalazioak zabaldu eta enpresa proiektua barneratzeko beharrean hasi dira.

Ilunbe sektore elektrikoko erakunde bat da, "urtenbide integral eta personalizauk eskaintzen dituana ekipo elektrikoen diseinuan, prototipo eta industrializazioan, automatismoen diseinu eta garapenean, sistema automatizaduen integrazino eta monitorizazioan eta landa

muntaketetan eta mantentze lanetan".

Ilunben 114 langilek egiten dabe behar eta proiektu honen bidez, hurrengo urte bietan, 40 lanpostu sortutea espero dabe.

Aldundiko 3i programea

Enpresa txiki eta ertainek "euren merkaduen buru izan daitezcan eta lehiakortasuna irabazten jarraitu dagien" sortu eban 3i programea Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Sustapen Sailak. Programeak funts galdurako 500.000 euroko dirulaguntzak emoten deutsez enpleguan eta hazkunderen eragina daukien enpresei, barrikuntzan, nazioar-

tektotzean eta inbersinoetan lagunduteko.

Zemendiaren 9an, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldu Nagusiak aurtengo deialdian parte hartzean daben 15 enpresen ordezkariakaz egon zan Foru Jauregian. Enpresek guztira aurkeztutako proiektuek 26 milioi euroko inbersinoa dakarre, eta foru programearen dirulaguntzea, batz beste, 373.000 eurokoa da. Onetsitako proiektuek plantako inbersinoak ekoizpenaren zati bat nazioartekotu eta fabrikazino prozesuak areagotzea, edo teknologia barriak txertatzea eta merkadu barrietara hedatzea bilatzen dabe, besteak beste.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Jarduerak ahal dala kanpoan egitea agindu dau Osasun sailburuak

Zemendiaren 17an argitaratu zan EHAA n aurreko eguneko Osasun Sailburuaren Agindua eta bertan, COVID-19 kutsatzeetan, 14 eguneko tasa metatua 100.000 biztanleko 150etik gorakoa dan udalerrietan, urriaren 6ko Aginduan jasotako neurriei beste neurri batzuk gehitzen jakiez.

Erredakzinoa

Sailburuaren Aginduak, tasa 150etik gorakoa danean, jarduerak jakin baten udalek aurreikusten badabe prebenzino neurriak ezin izango dirala bete, aldi baterako atzeratzeko edo bertan behera ixteko agintzen dau. Prebenzino neurriakaz egiten diran jardueretan, barriz, barruko espazioan zein aire zabalean, urrutze neurriak indartzea be jasoten dau Aginduak. Horretarako, kontzentrazioak aurreikusten diran lekuetan espazioa handitzea, igarobide-korridoreak ezartzea, personen fluxu ordenadua errazteko, elikagaiak eta edariak saltzeako eta konsumiduteko espazioak mugatzea eta ahal danean jarduerak kanpoan antolatuteko ahalegina egiteko eskatzen dau.

COVID ziurtagiria eta txertoa

Eusko Jaurlaritzak hainbat jardueretarako COVID ziurtagiria exijiduteko eskakizuna egin eutsan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiari

eta zemendiaren 21ean heldu zan ezezko erantzuna. Izan be, epaileen arabera, eskubide garrantzitsu asko murriztuko leukez ziurtagiriak: bardintasuna, intimidadea, biltzeako askatasuna, hara-hona ibilteko askatasuna eta adierazpen eta sorkuntza artistikorako askatasuna, hain zuzen be. Eusko Jaurlaritzak Espainiako Auzitegi Gorenera jo dau ziurtagiria ezartzea baimentzeko. Jaurlaritzaren ustez, "biziteko eskubideak eta osasunaren babesak" justifiketan daualako ziurtagiria.

Txertoari jagokonean, zemendiaren 25ean EMA Sendagaien Europako Agentziak oneretxia emon eutsan 5 eta 11 urte bitarteko umeei txertoa ipinteari. Osasun Sailburuak, oneretxiaren aurretik esanda eukan, abenduan umeei txertoa ipinten hastea espero ebala.

Txertoaren hirugarren dosia ipinten be hasi dira Euskadin. Zemendiaren 22ko Osasun Saileko txertaketa buletinean emondako datuen arabera, 12 urtetik gorakoen %91,4 dosi bat ipinita dauka, %90,5 dosi bi eta %3,1 hiru dosiak.

Lemoan harro bizi euskeraz

harro bizi euskeraz

LEMOA UDALA

Info+: euskara@lemoa.net / www.lemoa.net

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

COVID-19 erreskatea jaso ez dugunok ere sufritu ditugu COVID-19aren ondorioak

TOKIKOMen Administrazio Kontseilua

Eusko Jaurilaritzak erabaki du hedabide batzuei laguntzea COVID-19ak eragindako galerak apaltzeko, 5 milioi euroekin. Albisteak egoneza sortu du, inon ez baita azaldu zeren arabera eman zaizkien laguntza horiek hedabide batzuei, eta beste batzuei ez. TOKIKOMen Administrazio Kontseilutik galdegin diogu Jaurilaritzari ea asmorik duen gainontzekook ere laguntzeko, eta erantzun horren zain gaude. Erantzuna jaso bitartean, ohar hau argitaratzea erabaki dugu.

Dirulaguntzak hedabideei emateak hizkuntza politika gaintzen du eta ondo irizten diogu, edozein enpresa edo sektore moduan behar baitu laguntza hedabideen sektoreak eta horrela jokatzeko da munduko hainbat herrialdetan. Hedabideen kasuan, gainera, behar dira editorial ezberdinak dituzten hedabideak, behar ditu demokrazia sano batek. Edozein industria arlo moduan hedabideena ere lagundu izana albiste ona da eta horretan sakontzeko deia egiten diogu Eusko Jaurilaritzari.

Hala ere, momentuz, COVID-19aren garaian, hedabide batzuen galerak estaltzeko jarri da dirua, eta, bistakoa da demokrazia sendo batek eskatzen duela hedabide guzti-guztiak laguntzea. Arrazoia oso argia da: COVID-19ak hedabide guztioi eragin digu. Datu horien berri badu Eusko Jaurilaritzak.

TOKIKOM osatzen dugun hedabideon kasuan, zailena zen momentuan ere mezu instituzionalak,

osasunekoak eta oinarritzko beharrei lotuak zabaldu ditugu kazetaritza egin eta zerbitzua eman. Biak ala biak ziren garrantzitsuak, 200 profesional baino gehiagok eman zuten komeni zen zerbitzu esentzial hori eta irismena handia izan da, trafikoa ia bikoiztu eta 2.314.268 bisita jasotzeraino Tokikomeko hedabide digitaletan, esaterako.

Eman eta hartu. Herritarrek eskertu dute tokikoe-tan egindako lana eta datuak dira horren adierazgarri; erakundeek ez zuten berdina pentsatu, antza, pandemia egindako kanpainak eta publizitatea ia osotasunean egunerokoetara bideratu zutelako. Hala ere, espero dugu publizitatearekin ez bezela, laguntza puntual hauekin hedabideek pandemia honetan egindako lana aitortuko dela. Horixe da idatzi honen helburua: eskatzen dugu 5 milioi bideratu dutenekin mahai batean jartzea, jaso ez dutenentzako zer pentsatu den hitz egitea eta proposamen bat lantzea. Azkenik, baldintza berberetan dirulaguntza puntual bat adostea.

COVID-19a ez dute sufritu dirua jaso dutenek bakarrik; latza izan da kazetaritza egitea egun horietan eta egindako esfortzua aitortzea litzateke laguntza jaso ez dutenekin elkartu eta gaia lantzea. Hasieran esan dugunez, beraz, albiste ona da Eusko Jaurilaritzak hedabideen sektorea industria moduan kontuan hartu eta harentzako ere COVID-19 laguntza bereziak sortu izana. Eseri gaitezen mahai baten bueltan eta adostu ditzagun sektore osoarentzako babesaren nondik norakoak.

IGORRE

Lan eta pensino duinen aldeko mobilizazioak

Erredakzioa

Abenduaren 1ean, lan eta pensinoen erreformen kontrako manifestazioa egongo da, 19:00etan, Igorreko udaletxetik abiatuta, Lan, pensio eta bizi baldintza duinen alde lelopean. Zortzi dira Hego Euskal Herri osoan mobilizatzerako deitu daben sindikatuak: ELA, LAB, STEILAS, ESK, ETXALDE, HIRU, CGT eta CNT eta deialdiagaz eragile, herri mobimentu eta kolektibo ugari egin dabe bat.

Atzen urteetan, prekarizazioak

gora egin dau eta "2008ko krisiaren ondorio lazgarriak gaintu barik geunkazala harrapau gaitu COVID19ak eragin dauan osasun krisiak" dinoe Steilas sindikatukoek komunikadu baten. Horregaitik, bizitza duinerako burujabetza eskatzen dabe. "Lan guztiak aitortu eta bananduteko neurriak beharrezkoak dira, eta enplegurako baldintza duinak bermatzeko ordua be bada. Prekarietate- ra kondenautako langile belaunaldi barrion aldarikapena da hau, bazterrean eta ezkutuko lanetan gagozan

androna, bizirauteko nahikoak ez diran langabezia prestazioak jasoten doguzanona".

Hego Euskal Herriko lau uriburretan egingo dira manifestazioak, 11:00etan. Mobilizazioak egingo dira Bizkaiko 12 herritan, tartean, Igorren; Gipuzkoako 10etan, Arabako hirutan eta Nafarroako beste hirutan. Bat egin daben 40 bat eragile, herri mobimentu eta kolektibok; talde feministak, ekologistak, pensinodunenak eta gizarte-bazterkeriaren kontrako burrukan dabizen taldeak.

ARRATIA

Indarkeria matxistaren gaineko hausnarketeak jarraituko dau abenduan

Erredakzioa

Dokumentala, antzerkia eta tailer bi antolatu ditue talde feministek eta udalek zemendiaren 25aren harira, zelan aurre egin andren kontrako indarkeriaren gainean hausnartzeko.

Oingo hileko lehenengo jarduerare, abenduaren lehenengo egunean izango da Areatzako Udal Aretoan, 18:30ean. Han Jaizkibel konpainiak bultzatu eta Julen Hernandezek zuzendatutako Hondarribiako alardeari buruzko *Aurrera egin badugu* dokumentala ikusteko aukerea egongo da eta ostean, konpainiako Oihana Etxebarrieta-gaz barriketaldia egongo da. Dokumentalean, konpainiako Arantxa Urretabizkaia, Jaime Altuna eta Oihana Etxebarrietak, Garbiñe Biurrun, Kattalin Miner eta Itziar Ituño alkarrizketatu ditue. Festez, parekidetasunaz eta burruka feministaz egiten dabe berba.

Hurrengo egunerako, abenduak

2, eguna, *Zer egin daiteke indarkeria matxistaren aurrean* tailerra antolatu dau Kafrangak talde feministek. Arrastiko seiretan hasiko da Arteako Kultur Etxean.

Barikuan, hilak 3, Diman, antzerkia egongo da, Muxika eta Ibarruriko andrek *Errautsetatik* antzeztuko dabe 19:00etan frontoian. Inkisizinoan kokatutako antzezlan da. 2015eko martian estreinau zan, Onintza Enbeitaren zuzendaritzapean eta orduan Muxikako 50 andra baino gehiagok hartu eben parte. Harrezkerotzik, leku askotan eta arrakasta handiz taularatu da antzezlan.

Amaituteko, abenduaren 11n, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, Dimako eskolako kamarin, *Autoestima feminista* tailerra emongo dau Ema-gin alkarteak. Bertan aztertuko da andrek jendartetik ze mezu jasoten dabezan eta mezuok zelan eragiten daben autoestimuan eta zelan indartu horren aurrean.



IGORRE

Belaunaldi desbardineta
ikasleak batuko dira
Arratia Institutuko 50.
urteurreneko ekitaldian



Erredakzinoa

Mende erdi horretako momenturik esanguratsuenak gogoratzeko, Institutuan lan garrantzitsua egin dabenei errekonozimentua egiteko eta ikasleen lorpenak aitatzeko, Arratia BHI-koek, 50. urteurrena ospatuteko ekitaldia egingo dabe abenduaren 17an, Igorreko Lasarte Aretoan. Urte honeetako ibilbidea eta bertokoen bizipenak gogora ekarriko dabez, oingo ikasleak etorkizunari begira jartzeko. Ekitaldiak, institutuaren historiari egingo deuto errepasoa modu kronologikoan. Girotzeko abesti baten ondoren, lehengo

irakasle batzuek euren bizipenak kontauko dabez mahai-inguru baten. Eraikinaren bilakaerea eta egondako mailak eta hezkuntza sistemearen aldaketak azalduko ditue gero; tartean jantza batzuk egongo dira. Ondoren, omenaldia egingo jakie Institutuaren historian persona garrantzitsuak izan diran batzuei eta bertsoak entzun eta belaunaldien argazkiak ikusi ahal izango dira gero. Modu ia kronologikoan hona ailegau ostean, ikasleek hartuko dabe berbea. Ondoren ikastetxeari eta gurasoei egingo jakie errekonozimentua. Abesti moderno batez abaituko da ekitaldia.

DIMA

Borobilean izeneko proiektuak
irabazi dau errotondea
bizibarritzeko idea lehiaketean



Erredakzinoa

Nekane Intxaurtza eta Txaro Torneroren Boroblean izeneko proiektuak irabazi dau Telleri kaleko errotondea bizibarritzeko idea lehiaketean. Udaleko Dimako Personaren arloak ipini eban lehiaketean martxan eta zementatzen 16an ebatzi zan irabazlea. Proiektu irabazlea Pirritx, Porrotx

eta Marimototsen Boroblean kantant inspiratuta dago. "Proiektua baloretako, oinarrietan eskatzen ziran baldintzak aztertu ziran eta epaimahaiak aho batez ebatzi eban Boroblean zala idea irabazlea" adieraz deusie Udaletik BEGITUri. Oin kronograma bat egingo dabe proiektua gauzatzeko eta Udalak 2022ko martiaren 8rako prest eukiteko konpromisoa hartu dau.

DIMA

2021ean baino 260.000 euro gehiago
kudeatuko ditu Dimako Udalak 2022an

Alde eta kontrako boto kopuru bardinakaz, EAJ-PNV eta Dime Aukeratu plataformeak 4 boto eta EH Bilduk beste lau, alkatearen botoagaitik egin eban aurre bigarren botazinoan udal gobernuaren proposamenak, zementatzen 17an. 2022ko aurrekontua, 1.790.235 eurokoa da, 2021ekoa baino 264.689 euro gehiago.

Oin, boletinean argitaratu zanetik, hile bateko epea dauka oposizioak emendakinak egiteko. Hurrengo osoko bilkura baten aldaketa proposamenak eztabaidatuko dira eta ebatziko da onartu ala ez, eta behin betikoa bozkatuko da.

Erredakzinoa

Gabonak baino lehen izatea espero dau Udal gobernuak.

Zerbitzu eta inbersino gehiago

Aurreko urteetan legeaz, diru sarrearrak handiena %77,8 Aldundiko Udalkutxatik jasoko dau Dimak eta 2022an Udal zergetan igoerarik ez ezartzea aurreikusuten da behin-behineko aurrekontuetan. Ha-ta guzti be, aurreikusitako diru sarreraren igoerak, zerbitzu guztiak mantenduteaz gainera, herritarrei bideratutako zerbitzuak handituko dirala dinok udal gobernuak. Holan, azpiegitura eta lokalak prest eukiteko 212.500 euroko diru partidea dago aurkeztutako aurrekontuetan; herria jagoteko, 80.850 euro; Mankomunitateari lotutako zerbitzuak eskaintzeko 100.000 euro eta herritarrei dirulaguntzak eta zerbitzuak emeteko beste 103.573 euro.

Bardintasunerako 25.000

euroko diru partidea dago eta Bigarren Bardintasun Plana garatu gura da 2022an. Euskereak 14.000 euroko partidea dauka eta Kirola eta Kultura sustatzeko be diru partidak dagoz. Inbersinoei jagokienean, ahale-

gin handiena, bideen konponketan, saneamentuan eta frontoiko eraldaketan egingo dira. Holan, azpiegiturak hobetuteko 315.000 euro dagoz; bideak konpondutako 50.000 eta Baltzolako babesgunea handitzeko 8.500 euro, besteak beste.

EH Bilduk kontrako botoa

Borja Ruiz EH Bilduko bozerolea sano kritiko agertu zan aurrekontuak eta emendakinak egiteko hilaletan, EH Bilduk sakon aztertuko ebasala behin behineko aurrekontuak esan eban.

Aurrekontuak egiteko moduagaz, bere taldearen desadostasuna be agertu eban Ruizek. Izan be, bere esanetan, diru partida gehienak, herritarren eretxia kontuan hartu barik eta bakarrik teknikoena kontuan hartuta ebatzi ziran. Esate baterako, Indusiko saneamentua eta frontoiaren eraldaketarako, "diru partida handiak dagoz, herritarrek aztertu barik, teknikoaren eretxiakaz bakarrik" sortu diranak.

Irugarritasunerako partidarik eza eta basoak kudeatuteko plan baten faltea be txarretsi eban EH Bilduk.




Logo for **begitu.eus** featuring a stylized pink and black graphic.

Advertisement for **HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA** and **arratia INMOBILIARIA**. It lists services like interior design, architecture, and real estate, along with contact information.

Advertisement for **Kili-Kili** featuring a cloud logo and text: "Amigak eta Puzatutakoak", "Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Nafarroa)", "Tel: 94 472 43 81".

Advertisement for **Olaetxe** featuring a logo and text: "Graduazinoak", "Ikusmen terapia", "Ikusmen gibusua", "Begiak tentsioa", "Lentillen adaptazinoak", "Kiroletarako betaurrekoak", "Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)", "Tel: 94 457 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es".

SAREKO BIDE BARRIETATIK BARRENA



www.begitu.eus
begitu@begitu.eus

Iñigo Iruarizaga
Zuzendaria eta publizidade arduraduna
649 979 115
iñigoirua@begitu.eus

Beatriz Azpiri
Erredakzino burua
649 979 112
beazpiri@begitu.eus

Asier Abrisketa
Webgunearen arduraduna
626 647 923
asierabrisketa@begitu.eus

 /begitu.aldizkaria

 /BegituEus

 /begitu.eus



begitu

Abenduak 3. Euskerearen Nazinoarteko Eguna

Abenduak 1

16:00

Tailerra

Kulturgunean

*Arantzazu herri
euskalduna al da?*

*Euskararen
arnasgune al da?
(gaztetxoentzat)*



ARANTZAZUKO JAI BATZORDEA

Abenduak 3

20:00

Herriko Tabernan
Ander eta Edorta
(euskeraz kantuan)



EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Abenduak 3, barikua

19:30ean, kantu poteoa Batzokitik hasita.

Zeanuriko Udala



EUSKERAREN EGUNA 2021

Euskerak batzen
gaitu!

Erdul

IGORREN

ABENDUAK 2

Kultur etxean

“PANTAILAK
EUSKERAZ”

HITZALDIA

Goizean Institutoko
gazteentzat
eta 19:00etan
herritarrentzat



IGORRE
Donon herria
Donon dukera



ABENDUAK 3 EUSKERAREN EGUNA

KANTUA ETA OLERKIA
KALERA!

18:30ean EINGO

TALDEAGAZ herrian zehar
ibiliko gara. Hasiera,
Gau Lora taberna aurrean.

20:00etan “POESIA
HEGALARIA” TALDEA
“105” EKO ESPALOI
AURREAN.

Euskerak batu gaitzala!
Umeak, gazteak, helduak,
alkarteak...

* DENPORA TXARRA BADAGO, “POESIA HEGALARIA”
KULTUR ETXEAN EGINGO DA.

ABENDUAREN 3A. EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Euskerearen aldeko kultura ekintza ugari antolatu ditue Arratian

Abenduaren 3an ospatuten da Euskerearen Nazinoarteko Eguna eta euskerea jai giroan aldarrikatzeko eta erabilerea bultzatzeko hainbat ekintza egingo dira Arratiako herrietan eta Zeberion. Ekintza horreetako askok loturea daukie euskerea bultzatzeko kanpaina orokorrako batzukaz, *Haurren aurrean helduok, heldu* ekimenagaz eta datorren urteko Euskaraldiagaz, esate baterako.

**Erredakzinoa**

Haurren aurrean helduok, heldu kanpaina Euskaltzaileen Topaguneak bultzatutako ekimena da. Kanpaina honen helburua, umeak aurrean dagozanean, guraso, zaintzaile, senide eta beste hezitzaileen arteko barriketaldiak euskeraz izan daitezala bultzatzea da. Zemendiaren 22tik abenduaren 5era bitartean dago martxan eta eremu informaletako helduen arteko hizkuntza praktikak aldatu gura ditu, euskerea bultzatuz. Zeberioko Udalak, bat egin dau *Haurren aurrean helduok heldu* ekimenagaz eta gurasoek ekimenean parte hartu dagien, Udalak gutuna eta eskuorria prestatu ditu. Eskolearen bitartez banandu dira eskolako gurasoen artean, "hamabi urtetik beherako seme-

alabak dituen gurasoek euskerea erabili dagien etxean, plazan, frontoian, kalean... hau da, leku guztietan, umeentzako eredu eta eredugarri" izateko, azaldu deustso BEGITU Jon Bollar Zeberioko Euskera Teknikariak. Ekimenak irauten dauan egunetan, ekimena iragartzen dauan olan bat egongo da zintzilikatuta udaltzeko balkoian. Gainera, hizkuntzaren transmisioan, etxekoek erabilereak, helduen arteko erabilereak daukan garrantzia azpimarratzeko Paula Casaresek berbaldi bat emongo dau Zeberion, abenduaren 16an 18:30ean. Euskarazko Produktuen Katalogoa be bananduko da eskolearen bitartez. Euskerearen Eguna abenduan izanda, Gabonaldiaren bezperetan, urtero lez, herri batzuetan, udalek Euskarazko Pro-

duktuen Katalogoa heldu arazoko deutse gurasoei, umeentzako opariak erosterakoan, euskerazko produktuak kontuan izan dagien. Katalogo horretan, euskerazko liburu, disko, aplikazio eta jokoen azken produkzioak jasoten dira.

Euskaraldiaren III. edizioa, datorren urtean izango da, baina aurtengo zemendian aurkeztu da. Hitzek ekiteko garaia lelopean, 2022ko zemendiaren 18tik abenduaren 2ra izango da hizkuntz ohiturak aldatuteko ariketa kolektibo hau. "Ilusinoz, arduraz, gogoz eta emozinoz ekingo deusagu ariketeari. Kaleak beteko doguz barriro be, euskeraz berba egitea inoz baino errazago izan daiten. Belarripres-tok eta ahobiziok aukera barriak izan daiguzan lan egingo dogu alkarregaz, auzoz auzo, herriz herri eta arigunez arigune. Hitzek ekiteko garaia heldu da", azaldu dabe webgunean.

Arantzazun be gaztetxoek hizkuntza ohituretan eragin gura dabe eta horretarako, "Arantzazu herri euskalduna al da?" eta "Euskararen arnasgunea al da?" itaunei erantzuteko saio bat egongo da abenduaren 1ean, 16:00etan, Kulturgunean.

Euskerearen Nazinoarteko Eguna

Euskerearen Nazinoarteko Eguna 1949an sortu eban Eusko Ikaskuntzak, abenduaren 3an, Xabier Frantziskoren egunean, kondairaren arabera, honek, hil aurretiko bere azken berbak euskeraz egin ebazalako

duaren 3an, jarduera ugari egongo dira Arratian, baina laneguna danez, jai giroa arrasti iluntzean hasiko da batez be.

Areatzan, Guraso Elkar-teak antolatuta, 17:00etan, jantzetako ikasleen koreografia egongo da eta gero, hurreratutako guztiek batera, *Euskeraz bizi nahi dut* jantzea egingo dabe. Ostean txokolatea bananduko da plazan, eguraldi txarra egin ezker eskolako aterpean izango dira ekintzok. Areatzan, jarduerak ez dira egunera bakarrik mugatuko. Izan be, hurrengo egunean *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlan egongo da ikusgai, 19:00etan, Udaleko Aret Nagusian.

Artean, Eleder magoak ikuskitzuna egingo dau herriko plazan 19:00etan eta Bedian, umeentzako tailerrak egongo dira ludotekan.

Diman bezperan, *Basker* dokumentalak ikusteko aukerea egongo da 18:30ean, eskolako kameran. 1963an suediar telebista publikoarentzat Euskal Herrian filmautako dokumental etnografiko bi dira. Argibel Euba ikertzaileak, aurkitu eta aztertu ebazan. Dokumentalotan, sasoi haretako euskal kulturea agertzen da, suediar begiradatik.

Hurrengo egunean, abenduak 3, hainbat jarduera eta ekitaldi egingo dira Diman. Ekitaldi nagusia frontoi handian izango da 18:00etan eta 19:00etan, antzerkia egongo da *Errautsetatik erne*. Ondoren, 20:00etan, musikeak ipiniko dau jai giroa, frontoi txikian, Patrice Dumoraren eskutik. Egunari amaierara emoteko, urdaia eta txokolatea bananduko dira hurreratzeko diranen artean.

Igorren be, bezperan hasiko dira euskerea aldarrikatzen, *Pantailak euskeraz* berbal-diagaz, 19:00etan izango dana Kultur

Etxean. Pantailak Euskaraz mo-
bimentua, ikus-entzunezkoen
munduan euskereak daukan
presentzia eskasagaz arduratuta
dagozan hainbat herri ekimen
eta eragilek sortutako mobimen-
tua da. Euskerearen presentzia
handitzea da euren helburua.
Hurrengo egunean, Euskerearen
Nazinoarteko Egunean barriz,
aldarrikapenaren alde ludikoak
hartuko dau garrantzirik han-
diena. Horretarako kantuak eta
olerkiak aterako ditue kalera.
Holan, 18:30ean, Ein Go taldeak
animauko dauz Igorreko kaleak
bere musikeagaz eta 20:00etan,
Poesia Hegalaria taldeak poeta
euskaldunen poemak irakurriko
ditu 105eko espaloi aurrean
eguraldiak lagunduten badau eta
euri eta hotz handia egin ezkeru,
liburutegian.

Lemoak be alde ludikoari ga-
rrantzi handia emon deutso. Izan
be, 16:30ean, umeentzako jola-
sak antolatu ditu guraso alkarteak
eskolako patioan. Herri kirolak,
eskulan tailerrak, arpegia margo-
tuteko materialak, kantu lekua eta
musikaz betetako jai giroa ez dira
faltauko han. Kaleek be jai giroa
hartuko dabe 19:00etan, bertso

poteo eta trikitilariakaz. Unai Itu-
rriaga eta Oihane Perea ibiliko

dira bertsotan herriko taberneta-
tik zehar. Pelotazaleak barriz, Txu-

txin Txapelketako finalak ikusteko
aukerea daukie ordu horretan.

Zeanurin kantu poteoa egongo da
19:30etik aurrera, Batzokitik hasita.





Oin Estudio Duendek BEGITUrako publizidadea diseinatzen deutsu.

Publizidade eksklusiboa, zure enpresea IKUS arazoko dauana.
Eta diseinua zuk gura dozun lekuan erabilteko aukerea eukiko dozu
(beste aldizkari batzuk, internet...).

1. AUKEREA
Diseinua +
4 aldiz modulo 1 BEGITU

95€*

2. AUKEREA
Diseinua +
4 modulo BEGITUko portadan

135€*

Publizidadea:
649 979 115

*Prezio honeei BEZa gehitu behar jakie.

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

**Zeu zara zure
influencer onena.**
#KontsumitzenJakin





Euskadi, auzolana





BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkartea Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

Onakiaua Harri kuestakoa

Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre



LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



GENERATING SETS

HANDLING YOUR WORLD

CLIMATE SOLUTIONS

Abenduak 3,

17:00

Plazan (euria bada eskolako aterpean)

Euskerearen Eguna

Jantzetako ikasleen koreografia.

Gero **Euskaraz bizi nahi dut** jantzea danok batera. Ostean txokolatea.

Antolatzailea: Areatzako Guraso Elkarteak.



AREATZAN BE EUSKERAZ BIZI GURA DOGU!



Abenduak 4,

19:00

Udaleko Aretoko Nagusia

Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi antzezlanak.

Amançay Gaztañaga, Iraia

Elias eta Erika Olaizola.

Kamikaz Kolektiboa eta Ttak Teatroak.



IPINI ZURE IRAGARKIA
BEGITU

Informazinoa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

arteaeuskera



2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO
EGUNERAKO ADIERAZPENA



Arteako Udala
EUSKARA BULTZATZEN



AZKOREA

Igazko moduan laugarren egin eban Atutxak Sherpa.ai Txapelketako finalean

Erredakzinoa

Aitzol Atutxa indartsu hasi zan arren eta lehen 60 ontzakoan bigarren amaitu arren, atzenengo oinbikoan trabau eta igazko moduan laugarren egin eban azkolari dimoztararak. Txapelduna be igazko bera izan zan, Iker Vicente, hain zuzen be. Mikel Larrañagak eta Eneko Otañok osotu eben gizonezkoen podiuma.

Bigarren urtea da azkolariak eurek Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusia antolatuten dabena; lehenengoa publikoagaz eta andrazkoek be parte hartzean daben lehenengo aldia da. Hiru azkolari lehiatu ziran eta Karmele Gisasola nagusitu zan.

Gizonezkoen finala sei azkolarik jokatu eben; Iker Vicentek (39:37), Mikel Larrañagak (41:47), Eneko Otañok (43:14), Aitzol Atutxak (44:32), Julen Alberdik (45:53) eta Jon Irazuk (54:15).

Aitzol Atutxa txapel gehien dituan azkolaria da: Euskadiko 5 txapel; Bizkaiko banakako 14; Bizkaiko binakako 16; Bizkaiko 4 open; Donostiako Urrezko 4 kopa eta Urrezko Azkora, banakako bi eta binakako 7, besteak beste.

ETBk emon ez

ETBk ez eban transmitidu azkolarietako txapelketa nagusiaren finala eta azkolari dimoztarra kejau da sare sozialetan. Finalak, bere esanetan, 2.500 lagun bildu ebazan eta ETBk ez eban egin ezta laburpen edo alkarrizketa txikirik be eta "zelan da posible euskaldunon informazino eskubideak urratzea?" galdetzen dau azkolariak. Euskal Herriari, gure kirolari eta gure kulturari "lepoa erakutsi" deusala dino.

Atutxak emondako datuen arabera, Gol TV-ek trasnsmitidu eban emonaldia eta 115.000 ikusle izan ebazan; horreetatik 26.000 EAEn.

PELOTEA

EPELen Binakako Txapelketearen sailkapen partidua jokatu da Zeanurin

Erredakzinoa

Ibarretako pelotalekuan, abenduaren 10ean jokatu dira binakako partidua bi, 22:00etatik aurrera. Jokoa lehenengoak izango dira Bengoetxea VI eta Aretxabaleta gorri eta Artola eta Salaverri II urdinez. Gero helduko da Txapelketa Nagusiko bikoteen ordua. Urrutikoetxea eta Aranguren egingo deusie aurre Irribarra eta Rezustak

osotutako bikoteari. Jardunaldi bi jokatu dabez daborduko sailkapen ligan, bikote biak datoz partidua bana irabazi eta bana galduta.

Danel Elezkano

Elezkano II be badago Binakako Txapelketa jokaturen. Zabaletagaz batera partidua biak irabazi ditu Dimakoak. Lehenengoa Ezkurdia eta Tolosaren kontra, bigarrena barriz Irribarra eta Rezustaren aurka.

PELOTEA

Txutxin Txapelketako finalak hilaren 3an jokatu dira Lemoan

Erredakzinoa

Lemoako Eskupilota Taldeak antolatutako aurtengo Txutxin Txapelketako finalak abenduaren 3an, barikua, arrastiko 19:00etan jokatu dira; buruz burukoa eta binakako finalak, hain zuzen be.

Jaialdia buruz burukoagaz hasiko da. Holan, lehenengo partiduan, Aitor Zilaurren Igorrekoka

eta Ander Elorz Lemoakoa neurtuko dira eta txapela bakotxa bere herrira eroaten saiatuko da.

Ondoren, binakako finala izango da. Han, Lemoako klubeko pelotari bik Joseba Bilbao lemoaztararak eta Gorka Lazkano Zornotzakoak, Lemoako klubeko Narbanizeko Aitor Etxebarria eta Gernikako Urtzi Bidaburu izango ditue aurkari.

ZIKLO-KROSA

Txiki Kopari emongo deutso amaierera Igorreko Ziklo-krosak

Igazko etenaren ostean, eta Arratiako Ziklista Elkarteko zuzendaritza barriagaz, abenduaren 12an, 10:00etan, Igorreko Ziklo-krosaren 44. edizinoa izango da. Aurtan, ez da nazinoarteko izen handiko txirrindularirik bertan izango, umeak eta txirrindularitza eskolak izango dabe protagonismoa.

Erredakzinoa

Izan be, Igorren emongo jako amaierera Bizkaiko ziklo-kros eskoletako alebin eta infantilen Txiki Kopa Txapelketeari. Kadeteak eta juniorrak be izango ditue lasterketak. Guztira 500 bat txirrindularik hartuko dabe parte ziklo-krosean.

Adin bakotxari egokitutako ibilbide desbardinak izango ditue partaideek. "Ibilbidea laburragoa izango da, leunagoa eta kategoria bakotxak bere ibilbidea izango dau. Ez da betiko zirkuitua izango, nagusiena eta gogorra. Kadeteak eta juniorrak zirkuitu gogortxoagoa eukiko dabe alebin eta infantilak baino" azaldu deutso BEGIturi Juan Mari Zurinaga lehengo zuzendaritzakoak.

Kartelerako, Arratiako eskolako proiektzino handiko txirrindulari bat aukeratu dabe, Xabier Cerro dimoztarra, hain zuzen be. Cerro Lezamako junior mailako podiumera igon zan zemendiaren 21ean "oso ondo dabil, geugaz hasi zan umetan eta geugaz jarraituten dau eta bere proiektzinoa ikusita, kartelean bera ipintea ebatzi dogu" azaldu deutso BEGIturi Leire Aurrekoetxea AZEko zuzendariak.

AZEk zuzendaritza talde barria

Arratiako Ziklista Elkartek antolatuten dau Igorreko Ziklo-krosa. Sortu zanetik 43. edizinora arte, talde berberak eroan dau aurrera Arratiako ziklismo eskolea eta Igorreko Ziklo-krosa antolatu dau, hainbat urtetan munduko ziklo-krosari onenak Arratiara ekarrita. Igorreko Ziklo-krosaren 44. edizino hau barriz, alkarlanean antolatu dabe lehengo zuzendaritzeak eta lekukoa hartu deusan zuzendaritza barriak.

Leire Aurrekoetxea da oin alkarlearen zuzendaria eta Mikel Zarrabeitia, zuzendariordea. Bederatzi persona dira guztira, gehienak, txirrindulari eskolako ikasleen gurasoak, eta txirrindulari bi, Mikel

Zarrabeitia eta Jose Ramon Uriarte. "Oin hiru urte-edo hasi ziran honeek sartzean, eta talde oso-oso ona egin dabe: idea barriak, teknologian oso preparauta dagoz eta askoz gazteagoak dira" dino Zurinagak.

Aurtengo ziklo-krosa antolatuteko herriaren erantzun ona ezinbestekoa izan dala dino Aurrekoetxeak, "herritarren parte hartzea oso garrantzitsua izaten da beti, batez be ziklo-krosaren aurreko egunetan, zirkuituaren antolaketarako jentea behar izaten dogulako. Beti eskatzen dogu laguntzea eta erantzuna handia izaten da beti. Aurtan be gauza bera gertatu da".



MENDIA

San Kristobaleko XVIII. Mendi Martxea abenduaren 18an izango da

Erredakzinoa

Igazko etenaren ondoren, Igorreko San Kristobaleko XVIII. Mendi Martxea abenduaren 18rako antolatu dau Intxaurbizkar Kultur Elkartek Igorre eta Dimako Udalen laguntzeagaz. Aurreko asteko zapatuan, orientazino ikastaroa egingo dabe.

San Kristobaleko Mendi Martxan, ibilbide bi dagoz aukeran, luzeak 21 km ditu eta laburrak 17 km. Urtekerea San Kristobaleko plazatik 08:00retan izango da eta izena bertan emon behar da 07:30etik aurrera. Ibilbidean zehar jan-edan guneak egongo dira

eta COVID neurriak bete beharko dira. Aurreko edizinoa 2019ko zemendiaren 30ean izan zan.

Orientazino ikastaroa

Aurretik, hilaren 11n, 10:00etan, oinarritzko orientazino ikastaro teoriko-praktikoa egongo da. Alde teorikoa San Kristobaleko ermitan eta praktikoa auzunean izango da. Amaieran barauskarria egongo da. Izena aldeztu aurretik emon behar da eta 5 euroko prezioa dauka. Gehienez 40 personak hartuko dabe parte.

Ikastaroa Intxaurbizkar Kultur Elkartek antolatu dau Igorreko Udalaren laguntzeagaz.



FUTBOLA

Arratia A eta B taldeek lidertzan jarraitzen dabe

Arratiako gizonetzkoen taldeek liga hasikera oso ona egin dabe eta lider dira, Lemoako Harrobi be goiko postuetan dago. Andrazkoen Arratia A taldea be lidertzan egon bazan be hasikeran, atzen lau partiduak galdu egin ditu.

Erredakzinoa

Gizonetzkoen Arratia A taldeak 1-0 irabazi eban zemendiaren 27an Ugeraga A taldearen kontra Urbietan jokaturako partidua. Aurreko partidua be irabazi egin eban, 0-2 Gallarta A taldearen kontra. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Arratiak hilaren 4an, Abadiño A taldearen kontra arrastiko 16:00etan. Hamaika jardunaldiren ostean lidertzan dago Arratia 27 puntugaz eta oindino ez dau partidurik galdu. Arratia B taldeak osteraz zemen-diaren 28an jokatu eban eta 2-0 galdu eban Derio B taldearen kontra. Aurreko partidua osteraz 2-0 irabazi eban Iraultza taldearen kontra. Datorren partidua Otxarkoaga B taldearen kontra jokatuko dabe, hilaren 4an 17:45ean Igorren. Hamar jardunaldiren ostean lidertzan segiduten dau Arratiak 25 puntugaz, liga osoan Derioren kontra jokaturako atzen partidua baino ez dau galdu eta.

Arratia andrazkoak

Andrazkoen Arratia A taldeak zemendiaren 27an jokatu eban Bizkerre liderraren kontra Igorren eta 1-3 galdu eben arratiarrek. Aurreko partidua 3-0 galdu eben Lezaman Athletic C taldearen

kontra. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau Arratiak San Ignacio taldearen kontra hilaren 4an, arrastiko 16:00etan. Atzen lau partiduak galdu ditu Arratiak sailkapeneko lehenengo bost postuetan dagozan taldeen kontra eta hamaika jardunaldiren ostean bederatzigarren postuan dago 14 puntugaz. Arratia B taldeak zemendiaren 28an jokatu eban etxetik kanpo Derio taldearen kontra eta 4-3 galdu eban. Aurreko partidua osteraz 4-2 irabazi eben Urbietan Ibaiondo Nerbioi taldearen kontra. Datorren partidua Elorrio B taldearen kontra jokatuko dabe Igorren hilaren 4an, 20:00etan. Zortzi jardunaldiren ostean bederatzigarren postuan dago Arratia 12 puntugaz. Lemoako Harrobi taldeak 2-3 irabazi eban zemendiaren 28an Loiola Indautxu taldearen kontra etxetik kanpo jokaturako partidua. Aurreko partidua be irabazi eban Lemoako taldeak Arlonagusian Begoña A taldearen kontra. Datorren partidua Ezkurdi A taldearen kontra jokatuko dabe, hilaren 4an 16:00etan Arlonagusian. Hamar jardunaldiren ostean hirugarren postuan dago Lemoako taldea 22 puntugaz.



Arratia A eta Ugeraga A taldeen arteko partiduko irudia.

MENDIA

Onditz Iturbek irabazi eban Lemoatx Trail

Lemoatx Traileko lasterketa nagusiko andrazkoen txapela jantzi eban Onditz Iturbe lasterketari igorreztarak. Oihana Azkorbebeitiaren aurretik sartu zan helmugan, 24 kilometroak 2:21:30eko denporea eginda. Lehia gogor baten ostean, Azkorbebeitiak Iturbek baino 14 segundo gehiago behar izan ebazan lasterketea amaituteko. Podiuma Larraitx Aragonek osotu eban.

Erredakzinoa

Lasterketa nagusian Onditz Iturbe zan faboritua eta ez eban hutsegitarik egin, hori bai, sano interesgarria egon zan lasterketea eta atzenera arte ez zan jakin nok irabaziko eban: Iturbek ala Azkorbebeitiak. Belatxikietara igoeran Azkorbebeitiak hartu eban aurea, baina kilometroak aurrera egin ahala Igorrekoa distantzia gitxitzen joan zan eta Lemoara ailegetean harrapau egin eban. Lemoatxerako goranzkoan batera hasi ziran mendi lasterkari biak, eta gero, tartetxoa atera eutsan Iturbek Abadinokoari. Baina 22. kilometroan okerreko bidea hartu eban arratiarrek. "Ezkerretara egin beharrean zuzen segidu neban. Konturatu eta buelta erdia barriro gorantza. Orduan bai pentsau nebala ezingo nebala ezer egin, baina ez neban amore emon. Beraz, estutu eta nire sorpresarako eta bere sorpresarako be bai, pentsetan ebalako ni aurretik

ninoiala, barriro harrapau neban" azaldu deutso BEGURI Onditz Iturbek. Aurea hartu eta Azkorbebeitia baino 14 segundo lehenago heldu zan helmugara, lasterketea irabaziz.

Imanol Goñi gizonetzkoetan irabazle lasterketa nagusian

Lemoatx Trail lasterketa nagusian, gizonetzkoetan, Eako Imanol Goñik irabazi eban probea 2:05:29ko denporeagaz. Lehenengo hamarren artean, arratiar bi egon ziran,

Alexander Ordeñana Lemoakoa bosgarren egin ebana eta Unai Intxaurraga Zeanurikoa zazpigarren egin ebana. Hamasei kilometroko lasterketea barriz, Txomin Maraño Du-rangokoak irabazi eban. Bigarrena Julen Aranguena izan zan eta hirugarrena, Xabi Vegas. Nesken podiuma, Irati Ortiz de Andak, Aitziber Mendibilek eta Elisa Gonzalezek osotu eben. Esti Garcia Lemoakoak seigarren egin eban.



PELOTEA

Lau eta Erdiko finalerdietarako sailkatu da Amaia Aldai dimoztarra

Erredakzinoa

Lau eta Erdiko Master Laboral Kutta Txapelketako pelota mistoko finalerdietarako sailkatu da Amaia Aldai pelotari dimoztarra, zemendiaren 20an Balmasedan Leire Garairi 18-15 irabazi ostean. Sano partidu ona jokatu eben Aldaik eta Garaik. Dimoztarrari kosta egin jakon jokoan sartzea eta sakez falta bi egin ebazan. Garai 1-6 aurreratu zan. Baina Aldaik laster emon eutsan buelta partiduari eta seina bardindutea

lortu eban. Hortik aurrera partidua oso orekatuta egon zan eta bardinketa ugari egon ziran. Azkenera osoago heldu zan Aldai eta partidua irabaztea lortu eban. Amaia Aldaik Olatz Arrizabalagaren kontra jokatuko dau finale-rako pasea Muskizen abenduaren 5ean.

Ainhua Romero finalera promesa mailan

Ainhua Romero lemoaztarrek, promesa mailako pelota mistoko finala jokatuko dau Maddi

Berrokalen kontra, Urduñan Ane Belmonteri 9-18 irabazi ostean. Finala abenduaren 4an jokatuko da Abadiñon.



Amaia Aldai.

mediku naturista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zeliakoentzari elkagaiak
estetiziena

Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkoitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

o. Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

ANTZERKIA

Kamikaz Kolektiboaren eta Ttak Teatroaren *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlanaren egongo da ikusgai Areatzan

Erredakzinoa

Abenduaren 4an, 19:00etan, Amancay Gaztañagak, Erika Olai-zolak eta Iraia Eliasek *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlanaren taularatuko dabe Areatzako Udaleko Aretoko Nagusian. Aktoreek eurek sortu eta zuzendutako testu honetan, askatasunaren inguruko hausnarketa bat egiten dabe.

Sinopsia

Esmeralda, Ines eta Ursula, arrastiro, kanpai hotsagaz batera, puntual alkatzen dira meriendetako. Tisana, pasta, azukre eta pastelez beteten ditue gorputzak euren egunerokotasunaz berba egiten daben bitartean. Ba ete dakie, euren bizitza beste norbaitek kontatua izan dala? Zein begira-



datatik izan dira sortuak andra honeek? Nork idatzi dau euren historia? Kontau deuskuen modukoa da? Nok mobiduten dauz Esmeralda, Ines eta Ursularen kortseten hariak?

DOKUMENTALAK

Basker ikusteko aukerea egongo da Diman



Erredakzinoa

Abenduaren 2an, 18:30ean, Suediako SVT telebistak 1960ko hamarkadan egindako dokumental bi, *Basker (Euskaldunak)* 24 minutukoa eta *Bondei i Baskerland (Nekazaria euskaldunen herrian)* 17 minutukoa ikusteko aukerea egongo da eskolako kamanan. Argibel Euba antropologo galdakaoztarrak filmok erreperuatu, aztertu eta publikatu eban.

Basker Iturengo inauteriak hasten da eta sasoi haretako Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako herrietako ohiturak eta pertsonaiak jasoten ditu. *Basker*, luzeenak, herri kirolak, musika tradizionala eta jantzea jasoten ditu eta *Bondei i*

Baskerland-ek orduko baserriko bizimodua kontetan dau.

Lekuak eta pertsonak identifiketeak emon eutsan lan handia ikertzaileari, baina interes handiko lana da. Arratia be agertzen da dokumentalean. Artea, hain zuzen be. Han, Leon Bilbaok alboke jo, Luciano Artetxek Goazen mendirik mendi kantetan dau eta Maurizio Aldeiturriaga be agertzen da.

Ikerketea

Doktore tesirako gai bila ebilala egin eban topo Eubak 1963an Diario Vascos *Basker*-en filmaketaren gainean emondako informazio bategaz. Azalean, kazetari biren irudiak agertzen ziran eta argazki-oinak esaten eban Suediako telebistarako egiten ebela behar. Dan Grenholm eta Lennart Olson ziran Euskal Herriko folklorea eta bizimodua filmetan egozan kazetariak. Mende erdi beranduago, Suediako Irrati Telebisteak bialdu eutsan materiala Eubari eta honek aztertu eta digitalizau egin eban. Mikel Laboa katedrearen laguntzeagaz publikau eban ikerketea 2017an. *Basker* liburuak, DVD bat dakar eta han dokumental biak dagoz.

ZINEKLUBA

Iratxe Fresnedaren *Lurralde hotzak* dakar Igorreko Zineklubak

Igone Etxebarria

Abenduaren 16an, 20:00etan, Iratxe Fresneda zinemagile bizkaitarraren *road movie* itxurako ez fikzinozko filma ikusteko aukerea egongo da Lasarte Aretokan. Dokumentalaren zuzendaria izateaz gainera, gidoilari eta filmeko argazki zuzendaria be bada Fresneda. Musikea eta kantuak, Anari, Uxue Alberdi eta Joseba Irazokirenak dira. Filmak epaimahaiaren aitamen berezia jaso eban Italiako Mostra Internazionale del Cinema jaialdian.

Dokumentalak kontetan dau andra batek bere kamareagaz bakkarik egiten dauan bidaia eta zinemagilearen begiradea, erlezaintza,

arkitekturea eta iparraldeko argiagaz kurutzatzen da eta denporea

gelditu egiten dala dirudi kamareak irudi libreak erregistretako.



Iratxe Fresneda

Iratxe Fresneda Delgado (Arrigorriaga, 1974) zinemagile, gidoilari eta unibersidadeko irakaslea da. Eskandinaviako zinemagintzan aditua, doktore tesian, Lars von Trier zuzendariaren zinematografia lanetako andren estereotipoak aztertu zituan eta nazioarteko hainbat ikerketa proiektutan parte hartu dau.

Bere filmografia, *Irrintziaren oihartzunak* (2016), *Lurralde hotzak-Cold Lands* (2018), *Bigarren sexua* (2020, gidoilari eta ekoizle lanean), *Errotatiba* (2020) eta *Tetuan* (2021) filmek osotuten dabe.

KULTUREA

Igorreko Kultur Etxeak Lasarte Aretoko bazkide izateko kanpaina ipini dau martxan

Erredakzinoa

Gabonetan kulturea oparitu!! izenpean bazkide izateko urteroko kanpaina martxan dago Igorreko Lasarte Aretokan. Bazkide txartela, 25 euroren truke,

5 euro merkeago egin edo berritu daiteke abenduaren 28ra arte. Horretarako, Kultur Etxeko harrerara joan behar da, goizeko 09:00etatik 13:30era bitartean edo 16:30etik 20:30era.

Txartelagaz urteko ikuskizun

guztietan %25eko deskontua izaten da, eta zuzeneko ikuskitun bat eta lau pelikula debalde izaten dira. Euskal Antzoki Sareako antzoki guztietan be deskontuak egiten ditue Lasarte Aretoko bazkide txartelagaz.

EUSKERA PREST DOGU

DIMAKO UDALA

MUSIKEA

Rueda diskoaren aurkezpen kontzertua emongo dau Rafa Ruedak Lemoan

Lemoako Kotxepin Kultur Etxean egongo da Rafa Rueda abenduaren 10ean, 19:30ean, *Rueda* bere bakarkako seigarren disko luzea aurkezten.

Erredakzinoa

Sarrerrak salgai dagoz *lemonet* webgunean sei euroren truke.
 Diskoa zortzi kantuz osotuta dago eta bertan gitarrea, ahotza, musika elektronikoa eta literatura buztartzen ditu; izan be, bertan, Inge Muller, Joseba Sarrionandia, Iñigo Astiz, Audre Lorde, Mari Luz Esteban, Josu Goikoetxea eta Elena Olaveren testuak musika ditu.

Rafa Rueda

Rafa Rueda abeslari eta gitarrajoleak, bakarkako ibilbide luzea daukan arren, Broken Bihotz eta Pi L. T. taldeetako abeslaria izan zan, Zarauzko Lou Topet taldean gitarrajolea eta hainbat proiektu kolektibotan hartu dau parte Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribegaz batez be.
 Bere bakarkako lanak, *Kea* (2003, Metak), *Saredun eskua* (2006, Gaztelupeko Hotsak), *Zuhaitz okerretan gora noa* (2008, autoekoizpena), *Haragizkoa* (2006, KAP), *Enaren geometria* (2011, autoekoizpena), *Gabrie-*



Rafa Rueda.

len lekua (2013, Erroa), *Hiri kristalezkoa* (2017, Elkar) eta *Rueda* (2020, Zart) dira.
Umeentzako ipuin musikatua
 Abenduaren 13an, 17:30ean, 4 eta 8 urte bitarteko umeentzako Erica Lique te eta Oskar Gorroñoren *Euskal mitologia*

jira eta bira ipuin kontaketa musikatua egongo da Kotxepin Kultur Etxean. Formatu txikiko ikuskizun bat da, non ipuinak eta musika buztartzen diran. Ekinen honek, musika eta ipuinak bitarteko dirala, entzuteko gaitasuna garatzea dauka helburu nagusi eta musikeak garrantzi handia dauka.

ANTZERKIA

Sisiforen paperak antzezlanak ikusteko aukerea egongo da Igorren hilaren 11n

Erredakzinoa

Harkaitz Canok idatzitako antzerki obra hau, Euskaldunon Egunkaria zarratukeran inspirauta dago. Igorreko Lasarte Aretoan egongo da ikusgai abenduaren 11n, 20:00etan.
 Anjel Alkain, Joseba Apaolaza, Mikel Losada, Iñigo Azpitarte, Kepa Errasti, Mireia Gabilondo, Aitzpea Goenaga, Asier Hernandez, Asier Hormaza, Iñaki Rikarte eta Dorleta Urretabizkaiek egingen dabe aktore lanak. Zuzendaritza eta gidioa Fernando Bernues, Kike Diaz de Rada eta Sara Cozarrena da.
 Egunkari bateko eguneroko

jarduerak deskribiduten dau antzezlanak. "Egunkariako erredakzinoan prekariedadeak eta etsipenak aurre egiten deuse eta erloju kontra dihardue zehaztasunaren eta egitasunaren alde. Aldi berean, podereak hariak mobiduten ditu informazioa kontroletan saiatzeko. Egunkari deserosoaren kontra operazio juridiko-polizial bat zabaltzen dabe. Egunkaria zarratuko dabe, horrek dauan larritasunagaz. Zuzendaria eta administrazio kontseiluko lehendakaria torturatzen ditue komisarian. Ikertzea eta galdetza kazetariaren zeregina da, baina, eszena horreetan galdekaturakoa kazetaria bera da".



DUNBA

Zeberioako auzoetatik zehar kantu kontari

Zeberioako Zubialde eskolako LH 6. mailako ikasleak

Zubialde eskolako 2. eta 3. zikloko ikasleok ibilbide bat egin genduan Zeberioako auzoetatik kantu kontari.
 Zemendiaren 16an 2. eta 3. zikloko ikasleok Zeberioako auzoetatik ibilbide bat antolatu genduan. Eskolan daukagun agendeak Arratialeko herrietako ibilbideak ditu hilabete bakoitean. Zeberioko txanda urrian izan zan eta horregaitik ebatzi genduan ibilaldi hori egitea. Ez ginan bakarrik joan. Juan Manuel Etxebarria eta herriko hainbat jubiladu konbidau genduzan.
 Txangoa eskolan hasi zan. Au-

tobusak Ermitabarri auzora hurbildu ginduan goiz-goizetik eta bertan Juan Manuel Etxebarriagaz alkartu ginan. Berak ibilaldian zehar azalpen asko emon ebazan.
 Lehenengo geldialdia San Antonioko ermitan egin genduan, eta bertan ikasle batzuek hainbat istorio mitologiko kontau ebezan (Arrabako landa, jentilenak, Perutxu...). Hortik Santo Tomas eleizara abiatu ginan eta portikoaren harritadurearen inguruko informazioa jaso genduan, adibidez: hor dagozan harriak Nerbioi ibaitik ateratakoak dirala. Bertan, zuzatzen inguruko koplak batzuk kantau genduzan, adibidez haretari.
 Ondoren, Zeberioako lehengo eskolea ikusi genduan, gaur egun



Zeberioako ikasleak Juan Manuel Etxebarriagaz.

Errementari museoa dana. Leitoiki auzora joateko Isasi auzotik pasau ginan, eta Laminen errekeak bisitau genduan eta Juan Manuelek laminen mito bat kontau euskun. Horren ostean, karabi frantsesa ikusi genduan. 1943tik erabili barik dago. Horretan karea egingen zan hurrengo materialak: kare-harria eta egurra. Hamaitetakoak jan eta Ugarte auzora


abiatu ginan.
 Azken geldialdia izan zan eta gaztainondoari koplak bat kantau geuntsan. Amaitzeko eskolarako bidea oinez egin genduan. Oso ondo pasau genduan eta gure herriari buruzko gauza barri eta interesgarri asko ikasi genduzan Juan Manuel Etxebarriagaz batera.
 Gora gure herria! Gora Zeberio!



AGENDEA

ABENDUAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.
16:00etan, gaztetxoentzako saioa *Arantzazu herri euskalduna al da? Euskararen arnasgunea al da?* Kulturgunean.



AREATZA

Udagaien osoan zehar, onddoen garrantzia goraiatzeko hainbat aholku emongo dira Gorbeia Parke Naturaleko atsedenguneetan.
18:30ean, Jaizkibel konpainiari buruzko *Aurrera egin badugu* dokumentala eta Oihana Etxebarrietagaz solasaldia.
18:00etatik 20:00etara, Uparan jubiladu eta pensinodunen alkarteak antolatutako Gabonetako bazkarirako izen emotea alkartearen lokalean. Bazkaria hilaren 18an izango da Hotel Balnearioan. Urteko kuotea ordaindu eta Gabonetako loteria erosi be egin daiteke.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.
08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51.
19:00etan, lan eta pensinoen erreformen kontrako manifestazinoa udaletxetik abiatuta.

Gabonetan kulturea oparitu!! izenpean bazkide izateko urteroko kanpaina martxan Lasarte Aretoan. Bazkide txartela, 25 euroren truke, 5 euro merkeago egin edo barritztu daiteke abenduaren 28ra arte Kultur Etxean.



LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.
Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 16:30etik 17:15era, eguaztenetan, DBHkoentzako kiroldegian, izena aurretik emon; 17:30etik 18:30era, edadekoentzako kiroldegian, izena aurretik emon.
ZEBERIO
17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.
Hilaren 5era arte, *Haurren aurrean helduok heldu* ekimena.



ABENDUAK 2
AREATZA

18:00etatik 20:00etara, Uparan jubiladu eta pensinodunen alkarteak antolatutako Gabonetako bazkarirako izen emotea alkartearen lokalean. Bazkaria hilaren 18an izango da Hotel Balnearioan. Urteko kuotea ordaindu eta Gabonetako loteria erosi be egin daiteke.
ARTEA
18:00etan, berbaldia *Zer egin daiteke indarkeria matxistaren aurrean?* Kultur

Etxeiko Areto Nagusian.
DIMA
18:30ean, Argibel Eubaren *Basker: 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalak* eskolako kamaran.
IGORRE
19:00etan, *Pantailak euskeraz* berbaldia Kultur Etxean.
19:00etan, abenduaren 23ra arte eguenero, idatz tailerra Idoia Carramiñanaren eskutik Udal Liburutegian.

ABENDUAK 3
AREATZA

17:00etan, jantzetako ikasleen koreografia; gero *Euskeraz bizi nahi dut* jantzea hurreratutako guztiek batera eta ostean txokolatea. Plazan, euria egin ezkeror eskolako aterpean. Guraso alkarteak antolatuta.
ARTEA
19:00etan, Eleder magoa plazan (euria egin ezkeror, frontoian).
BEDIA
17:00etatik 19:00etara, Euskerearen egunaren inguruko umeentzako tailerrak ludotekan.
DIMA
18:00etan, Euskerearen Nazinoarteko Eguneko ekitaldi nagusia frontoi handian; 19:00etan, Muxika eta Ibarruriko andre *Errautsetatik* *erne* antzezlanana antzeztuko dabe frontoi handian; 20:00etan, musikea Patrice Dumoraren eskutik frontoi txikian. Ostean, urdai-jana eta txokolatea.



Euskerearen egunean euskal poesia kalera aterako dau Poesia Hegalaria taldeak

Eguraldia ona bada 105aren espaloi aurrean eta txarra bada liburutegian, Poesia Hegalaria taldekoek erreztaldia egingo dabe abenduaren 3an, 20:00etan.
Sarrionandiaren *Poesia hila dago baina ni ez naiz izan* poemeagaz hasiko da saioa. Paddy Rekalderen *60 urteko gaua*, Pello Otxotekoren *Mendiaren errailetan*, Pablo Cabañasen *Iraungo dute*, Miren Agur Meaberen *Ohar laburrak*, Cabañasen *Milurteko azken uda*, eta Arestiren *Nire aitaren etxea* irakurriko dabez gero. Euskal poesiaren klasiko honek emongo deutso amaierea saioari "olerki honetan Arestik esaten daualako aitaren etxea (euskerea) gauza guztien gainetik defendiduko ebala. Horregaitik ez dago modu hoberik Euskerearen Eguna biribiltzeko Nire aitaren etxea olerkia entzun eta sentiduten baino" azaldu deutso BEGITU Iru- ne Elexpe Poesia Hegalaria taldekoak.

IGORRE

18:30ean, Ein Go taldeagaz kalejirea Gau Lora tabernatik hasita; 20:00etan, Poesia Hegalaria taldea 105ean.
LEMOA
16:45ean, Gaztelekuak antolatuta, Escape room-era urtekerea (tren geltokian); 16:30ean, Guraso alkarteak antolatuta, umeentzako jolasak eskolako patioan: herri kirolak, eskulan tailerra, arpegiak margotu, kantu leku... musikaz betetako jai giro alai; 19:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, Txutxin Pilota Txapelketako finalak frontoian, 19:00etan, Bertso poteoa eta trikitilariak. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Oihane Perea.
ZEANURI
19:30ean, Batzokitik hasita kantu poteoa.

ABENDUAK 4
AREATZA

19:00etan, *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi* antzezlanana. Amancay Gaztañaga, Iraia Elias eta Erika Olaizola. Udaleko Areto Nagusian.



DIMA

17:00etan, Bizkaiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako saioa frontoian.



ABENDUAK 5
IGORRE

17:00etan, zinea, *Ron da error*; 19:30ean, *Petite Maman*.

ABENDUAK 9
IGORRE

19:00etan, abenduaren 23ra arte eguenero, idatz tailerra Idoia Carramiñanaren eskutik Udal Liburutegian.
LEMOA
Hilaren 24ra arte, 10:30etik 12:30era eta 16:30etik 19:30era, Olentzero eta Mari Domingirentzako gutunak bialtzeko postontzia Kotxepin Kultur Etxean.

ABENDUAK 10
LEMOA

19:30ean, Rafa Ruedaren kontzertua Kotxepin Kultur Etxean. *Rueda* diskoaren aurkezpena.
ZEANURI
22:00etan, Ibarreta Udal Pelotalekuan, Bengoetxea VI-Aretxabaleta vs Artola-Salaverri II eta Urrutikoetxea-Aranguren vs Irribarria-Rezusta. Sarrerak aldeztu aurretik erosi Zeanuriko udaletxean, Zeanuriko jubiladuen tabernan edo Igorreko Gau Lora tabernan.

ABENDUAK 11
DIMA

10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, *Autoestima feminista* tailerra Emagin alkartearen eskutik Elexalden.
IGORRE
10:00etan, orientazino ikastaroa San Kristobalen. Ostean, barauskarria. Aurretik izena emon.
20:00etan, *Sisiforen paperak* antzezlanana Lasarte Aretoan.

ABENDUAK 12
AREATZA

09:30ean, urtekerea eleiza aurretik. Turroi Eguna, Ubideko Siskino mendira. Antolatzaileak: Lamino Kirol Kluba eta Areartzako Guraso Elkartea.
IGORRE
10:00etan hasita, Igorreko Ziklo-krosa Olabarriko zirkuituan.
17:00etan, zinea, *Zutik!*; 19:30ean, *Way Down*.
ZEANURI
10:00etatik 14:00etara, Gabonetako merkadua.

ABENDUAK 13
BEDIA

16:30etik 19:30era, hilaren 22ra arte, Gabonetako Txartel Lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketea.
LEMOA
17:30ean, 4 eta 8 urte bitarteko umeentzako ipuin kontaketa musikatua Erica Lique te eta Oskar Gorroñoren *Euskal mitologia jira eta bira*. Kotxepin Kultur Etxean.

Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 09:30etik 11:00etara, astelehenetan ibilaldi gidatuak helduentzako Gudarien parkean; 11:00etatik 13:30era, orientazino zerbitzua Arraibin.

ABENDUAK 14
IGORRE

19:30ean, Gure Eskuk antolatuta, *Gailurra zain dugu* batzar irekia. Zelai Nikolas, Karnele Olabarrieta eta Paula Roson zuzendaritzako kideakaz Kultur Etxean.

ABENDUAK 15
BEDIA

19:00etan, Erregeen Kabalgotan parte hartzeako batzarra eskoletan.
LEMOA
Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 16:30etik 17:15era, eguaztenetan, DBHkoentzako kiroldegian, izena aurretik emon; 17:30etik 18:30era, edadekoentzako kiroldegian, izena aurretik emon.

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK
MINTZAPRAKTIKA SAIOAK
 Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako lagunentzat). Telefonoa: 635 750 097.
SALTZEAN DOT
 Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikauak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Deitu 657 707 725 telefonora.
SALTZEAN DOT
 Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta prezio sano onean. Altuerrea 2,10 metro, zabalerea 2 metro eta sakonerea 40 zentimetro. 615 708 238.
SALTZEAN DODAZ
 Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.
LANA
INGELES IRAKASLE BILA
 Ingelesa dakian persona baten bila nabil,

batxillergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emateko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.
KLASEAK EMOTEN DODAZ
 Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.
KLASEAK EMOTEN DODAZ
 3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Way Down filmarako.

Aritz Undurraga (Lemoa)
 Juanti Menika (Arantzazu)



2
Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Sisiforen paperak antzezlanerako.

Mertxe Ortuzar (Zeanuri)
 Aitziber Gondra (Bilbo)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean
sema
 e-16
 Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
 Tfnoa. 94 631 92 96 • sema@sema.com

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA
 ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tlf. 94 631 92 00

BIXER
 TABERNA
 Boko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

BIZARGINAK
 -Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu- Baxarra egin eta buzkunduen dogu
 Tel. 94 607 78 33
 Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
 Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia
 Tlf. 94-673-70-87
 609-79-40-54

ZEKUTZE
 JATEETXEA
 Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia
 Tel.: 94 631 52 83
zekutzejateetxea@hotmail.com


Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
 Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
 Tel. 94 631 15 26

Pinturas Anaitia
 Javi Morato
 Tel. 628 443 992

ZUZENBIDE
 ASEGURUAK:
 AUTOAK
 ETXEBIZITZAK
 AHOLKULARITZA:
 LAN ZUZENBIDEA
 ZERGAK
 KONTABILITATEA
 DENDAK
 ISTRIPUAK
 BIZITZA...
 Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96
 Sabino Arana 3. behea • Igorre (Bizkaia)



Areatza Bainuetxea



Heldu da Olentzero Areatza Bainuetxera

Gure bonu opariak:

- Zirkuitu termalak
- Fisioterapia bonuak
- Masajeak
- Zirkuituko bonuak + janaria
- Estetika
- Hoteleko egonaldi bonuak + bainuetxea
- Bikoteentzako gutiziak
- Hidroterapia
- Gorputzeko zainketak

Imajina daikezun guztia opari gisa bilduko deutsugu...

Jasotera etor zaitekez edo e-mailez bidaliko deutsugu.

Konsultau gure tratamentu guztiak hemen:

www.hotelbalnearioareatza.com

info@hotelbalnearioareatza.com · 94 657 27 05

Askatasuna 50 Bis - 48143 - Areatza - Bizkaia